



EUSKALTEL TALDEAREN USTELKERIAREN

AURKAKO POLITIKA

SARRERA	2	
1.-HELBURUA	3	
2.- APLIKAZIO-EREMUA	3	
3.- ONARTZEA, JARRAIPENA EGITEA ETA BERRIKUSTEA		
3		
4.- POLITIKA	4	
4.1.- EROSKERIAREN ETA USTELKERIAREN DEFINIZIOA	4	
4.2.- TALDEAREN ARRISKU-GUNEAK	5	
4.3.- ARRISKU ZEHATZAK	5	
4.3.1.- Errazte-ordainketak	5	
4.3.2.- Eroskeriak	6	
4.3.3.- Opariak, dohainak eta mesedeak	6	
4.3.4.- Hornitzaileak	7	
4.3.5.- Babesletzak eta kolaborazioak	8	
4.3.6.- Kontabilitate-erregistroak		9
4.3.7.- Mesede-tratuak eta interes-gatazkak	9	
4.3.8.- Lehiaren aurkako jardunbideak		10
5.- KANAL ETIKOA	11	
6.- DIZIPLINA-ERREGIMENA	11	



SARRERA

Euskaltel Taldeak, zeinaren entitate nagusia legearen ondorioetarako Euskaltel SA baita, berariaz uko egiten dio ustelkeria-mota orori, eta konpromiso sendoa du eroskeria eta ustelkeriaren prebentzio, disuasio eta detekzioarekin.

Dokumentu honek, zeina Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren parte baita, ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako politika bat ezartzen du, ustelkeriaren aurkako legedia betearazteko tresna sustatzaile izan dadin Talde osoan, zintzotasunaren balioa garatuz (Taldearen Kode Etikoan aipatu da), eroskeria- edo ustelkeria-mota ororen aurka.

Politika hau osatzeko, nazioarteko hainbat enpresa-erantzukizun eta ustelkeriaren aurkako politika hartu dira erreferentzia gisa. Hauek, besteak beste: ELGEren ustelkeriaren aurkako politika, Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa, Atzerriko ustelkeriazko jardunbideen aurkako AEBko Legea (*Foreign Corrupt Practices Act*, FCPA) eta Erresuma Batuko Eroskeriaren aurkako Legea (Bribery Act). Erreferentzia horiek kontuan izanda ere, dokumentu honen oinarria Espainiako Zigor Kodea da, zeinak eroskeriarekin eta ustelkeriarekin lotutako jardunbideak debekatzen baititu. Zehazki, azken erreformaren ondoren, zeina martxoaren 30eko 1/22015 lege organikoan jasoa geratu baita, kodeak ustelkeriagatiko delituak zehazten ditu, zigorrak indartzen ditu administrazio publikorako eta, nazioarteko direktibetara moldatzeko, partikularren arteko ustelkeriaren figura barne hartzen du.

Erreferentzia horiek oinarri hartuta, Euskaltel Taldearen Kode Etikoaren eta beste arau eta politika batzuen bidez, prebentzio-tresnak garatzen dira, legea betetzeko kultura sustatzen dutenak. Ez aplikagarria den kanpoko legea betetzeko bakarrik, baita une oro printzipio etiko gorenak betetzekoa ere.

Legea eta printzipio etiko horiek betetzearen kultura sustatzeak berekin dakar kontseilarien eta Euskalteleko profesional guztien —beren jarduera profesionala Euskaltel Taldeko enpresetan gauzatzen duten guztien— jarduerak taldeari eta haren ospeari eragiten diotela aitortzea; eta onartzea, halaber, Taldeko enpresa guztien jarduera guztietan bete beharrekoa dela dokumentu honetan jasotako politika.



1.- HELBURUA

Helburu hau du politika honek: eroskeriarekin eta beste ustelkeria-mota batzuekin lotuta legea eta borondatezko beste arau batzuk derrigor betetzeko jardunbideak zehaztea Euskaltel Taldeak.

2.- APLIKAZIO-EREMUA

Hauei aplikatu eta betearazi behar zaie, nahitaez, dokumentu hau: Euskaltel Saren Administrazio Kontseiluko kideei, Euskaltel SA legearen ondorioetarako Euskaltel Taldeko sozietate nagusia den heinean, eta Taldearen edozein sozietatetan beren jarduera profesionala gauzatzen duten pertsonen (hemendik aurrera, profesionala/k), bereizi gabe zer erantzukizun duten erakundeari dagokionez, zer kokapen geografiko edo funtzional duten, eta zuzenean zerbitzuak zein sozietaterentzat ematen dituzten.

Halaber, hauei aplikatu eta betearazi behar zaie: Euskaltel Taldeari edozein motatako ondasun eta/edo produktuak edo zerbitzuak ematen dizkieten hirugarrenei edo, edozein modutara, haren kontura jarduten dutenei, hala nola hornitzaileei (aurrerantzean, hornitzaileak), enpresa azpikontratatuak eta/edo profesional independenteak, edozein delarik ere emandako zerbitzuen helburua eta lan egiten duten lurraldea. Politika hau bere hornitzaileei helaraziko die Euskaltel Taldeak, onartu eta bete dezaten.

Politika honen irismenari eta aplikazioari buruzko komunikazioa eta aldizkako trebakuntza emango dizkie Euskaltel Taldeak.

Aurrerantzean, politika honen hartzaile guztiei “obligaziodun subjektu” esango diegu, dokumentu honetan.

3.- ONARTZEA, JARRAIPENA EGITEA ETA BERRIKUSTEA

3

Administrazio Kontseiluak onartu ondoren jarriko da indarrean politika hau.

Araudiaren eduki eta aplikazioaren jarraipena egin, eta aldizkako berrikuspenak egingo ditu araudia betearazteko arduradunak. Une bakoitzean egoki iritzitako aldaketak eta hobekuntzak egingo ditu, zeinak Administrazio Kontseiluak onartu beharko baititu.

4.- POLITIKA



Euskaltel Taldeak berariaz eta modu ukaezinean adierazten du ez duela onartuko inolako eroskeria eta ustelkeriarik, gobernukorik edo komertzialik, edozein mailatakoa dela ere, eta debekatu egiten dituela eroskeria- eta ustelkeria-mota oro, zuzenean, zeharka nahiz hirugarrenen bidez eginikoak.

4.1.- EROSKERIAREN ETA USTELKERIAREN DEFINIZIOA

4

Ez dago eroskeriaren eta ustelkeriaren kontzeptu unibokorik. Dena den, hau da Espainiako Zigor Kodeak delitutzat hartutako jardunbideen zerrenda:

- eroskeria (aktiboa) eta estortsioa (eroskeria pasiboa), bai funtzionarioena eta bai sektore pribatukoa;
- funtzionario-eroskeria, bidegabeko erabiltzea eta bidegabeko jabetzea.
- Influentzia-trafikoa; iruzurrak eta negoziazioak, eta funtzionario publikoei debekatutako jarduerak;
- funtzionarioen eta eragile pribatuen funtzio-abusua.
- lehiatzeko abantailak lortzeko ordainketak;
- alderdi politikoen legez kanpoko finantziazioa.
- manipulazioak, eta hirigintzako iruzurrak eta lurralde-ordenamenduaren aurkakoak;
- kapitalen zuriketa eta dokumentu faltsuak erabiltzea.

Nolanahi ere, politika honi dagokionez, eroskeria eta ustelkeria dira hauek guztiak:

- **Eroskeria:** legez kanpoko ekintza baterako pizgarri gisa edo konfiantza-abusu gisa egindako eskaintza, agintza, emate, akordio, onarpen eta abantaila-eskaera oro.
- **Ustelkeria:** jarduera-ahalmenaren desbideratze oro, desbideratzea egin duenaren interes partikularrera edo beste baten interesera (hala nola Euskaltel Taldeko sozietate baten interesera) bideratua, ez dagokion abantaila bat lortzeko, ondarezkoa edo beste mota batekoa. Eremu publikoko nahiz pribatuko —partikularren arteko— iruzurra hartzen ditu barnean.

Eroskeriarekin eta ustelkeriarekin lotutako jokaerak, sektore publikokoak nahiz pribatukoak izan, **delitu dira, Zigor Kodearen arabera**, eta zigor handiak dakartzate, pertsona fisiko nahiz juridikoentzat. Pertsona juridikoen kasuan, legez ordezkatzan dituzten pertsona fisikoen



mesedetan egindako delituzko egitateen ardura exijituko zaie; halaber, bere betebeharrak ez betetzeagatik (delitua egin duen pertsona fisikoaren ikuskapen-, zaintza- eta kontrol-lanetan hutsegite larriak egiteagatik) dagokion ardura exijituko zaio pertsona juridikoari.

4.2.- TALDEAREN ARRISKU-GUNEAK

Bere negozio eta operazioetako alderdi guztien eroskeria- eta ustelkeria-arriskua ebaluatu du Euskaltel Taldeak, eta hauetan ikusi du arrisku handiena:

- Errazte-ordainketak
- Eroskeriak
- Ordainketa bidegabeak eta opariak
- Hornitzaileak
- Babesletzak eta lankidetzak
- Kontabilitate-erregistroak
- 4.3.7.- Mesede-tratuak eta interes-gatazkak
- Lehiaren aurkako jardunbideak

Hau ez da zerrenda osoa, eta Obligaziodun Subjektu guztiek kontuan hartu behar dute ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako politika honetako printzipio orokorra Euskaltel Taldeari eragiten dioten jarrera eta harreman guztietan, baita zerrendan jaso ez diren egoeretan ere.

Arriskuen ebaluazio hau aztertu eta berrikusi egingo da aldizka, eta zirkunstantzia-aldaketa ororen aurrean eguneratu egingo da. Aldaketa horiek Administrazio Kontseiluak onartu beharko ditu.

4.3.- ARRISKU ZEHATZAK

4.3.1.- Errazte-ordainketak

Errazte- eta azkartze-ordainketak debekatu egiten ditu Taldeak.

Errazte-ordainketatzat jotzen dira hauek: ordainketa txikiak, ez-ofizial eta desegokiak, funtzionario publiko bati egiten zaizkionak errutinako ekintza bat edo beharrezko ekintza bat (hala nola baimen eta lizentzia administratiboak ematea, kontratua gauzatzeari lotutako ikuskapenak) egiteko edo azkarrago egiteko, ordainketa egiten duenak ekintza horretarako eskubidea izanik.

Eskainitako edo eskatutako ordainketa txikia izan daiteke, baina eroskeria da, hala ere, non eta ez den berariaz eta idatziz legeak baimendutakoa.

Aipatutako kasu horietan, “funtzionario publiko” gisa hartzen dira nazioarteko, estatuko edo tokiko erakundeetan lan egiten dutenak edo haiek ordezkatzan dituztenak, bai eta estatuko



edo tokiko gobernu baten parte-hartzea duten enpresa publikoetan lan egiten duten pertsonak ere.

4.3.2.- Eroskeriak

Lehen definitutako kontzeptuari dagokionez, Euskaltel Taldeak adierazten du zintzotasun-estandar gorenekin konpromisoa hartua duela bere negozioetan, eta gardentasun osoz eta zuzentasunez jardungo duela bere merkataritza-harremanetan.

Taldeak debekatu egiten du negozioak lortzeko edo enpresa-erabaki batean Taldeko sozietateen aldeko erabakiak bultzatzeko ordainketak egitea ezein hartzaileri.

Kontratazioetan eroskeria-arriskua handia da, eta Euskaltel Taldearen jardueretarako askotan parte hartzen dute kanpoko aholkulari, agente eta bitartekariak. Hori dela eta, haiek guztiak kontratatzean ekitatez jarduteko eta haien kontratazioetatik eratorritako merkataritza-harremanetan zintzotasuna eta zuzentasuna bermatzeko konpromisoa hartzen du Euskaltelek. Bestalde, haiei ordainsariak ordaintzea ez da legez kanpoko izango, non eta ez den ordaintzen pizgarriarik modu desegokian jokatzeko.

4.3.3.- Opariak, dohainak eta mesedeak

Euskaltel Taldeko kontseilari eta profesionalek ez diete eskatu eta eskaini behar oparirik, dohainik eta mesederik hirugarren batzuei, ez eta haiengandik halakorik jaso ere, baldin eta hori egiteak haien inpartzialtasunari, profesionalen objektibotasunari edo harreman komertzial profesional bati eragiten badie. Hirugarrenen zerrendan sartzen ditugu, besteak beste, bezeroak, hornitzaileak eta administrazio publikoak.

Ezingo da oparirik, dohainik eta mesederik erabili abantaila bidegabeak eskuratzeko edo legez kanpoko transakzioen ihesbide gisa. Kasu guztietan, proportzionaltasun-printzipioa eta ohiturak hartu behar dira kontuan.

Euskaltel Taldeko bezeroek edo hornitzaileek politika honekin bat ez datozen arauak badituzte, kontuan hartu beharko da ezaugarri hori, hirugarrenen izen onari kalterik ez egiteko.

Politika honi dagokionez, onargarri joko dira Euskaltel Taldeko enpresek sustapen-ekitaldietara joateko jasotako gonbidapenek eragindako joan-etorrien eta ostatu-hartzeen arrazoizko gastuak, baldin eta ekitaldi horiek bezero edo bezero potentzial talde bati zuzentzen bazaizkie —eta ez partikularrei—, eta enpresa-ohiturekin bat badatoz.



Era berean, politika honi dagokionez, onargarri joko dira, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzetan Euskaltel Taldeak bezeroei edo bezero potentzialei sustapen- edo trebakuntza-jardueretarako egindako gonbidapenak.

Normala da, eta onargarria, baldin eta merkataritza-eragiketa normalak desitxuratzeko asmorik ez badago, obligaziodun subjektuak, beren negozioetan, hitzaldietara, bileretara, kultur edo kirol-ekitaldietara eta/edo babesletza-ekitaldietara joatea, Taldeko enpresen eta negozioko kontaktuen arteko harremanak hobetzea helburu hartuta. Era berean, normala da, eta onargarria, Euskaltel Taldeko enpresek, beren negozioetan, hornitzaileak eta bezeroak hitzaldietara, bileretara, kultur eta kirol-ekitaldietara eta babesletza-ekitaldietara gonbidatzea, Taldeko enpresen eta negozioko kontaktuen arteko harremanak hobetzea helburu hartuta.

Zalantzarik sortuz gero opari, dohain edo mesede baten onargarritasunaz, ez da halakorik hartu behar edo, hala badagokio, enpresako agintari hurbilenari edo Araudia Betearazteko Arduradunari (Compliance Officer) galdetu behar zaio, edo Kanal Etikora jo. Ezinezkoa irudituz gero opari, dohain edo mesede bat ez onartzea, Araudia Betearazteko Arduradunari (Compliance Officer) eman behar zaio egoeraren berri; hark, berriz, Araudia Betearazteko Batzordeari.

4.3.4.- Hornitzaileak

Euskaltel Taldearekin merkataritza-harremanak dituzten pertsona edo enpresen ekintzek edo ez-egiteek Taldeko sozietateentzat erantzukizunen bat ekartzeko arriskuak kontuan harturik, hornitzaileei eta hornitzaile potentzialei aplikagarri zaien legedia zorrotz betetzeko exijituko die Taldeak.

Euskaltel Taldeak bere hornitzaileen lege- eta finantza-egoera aztertzen du, eta beharrezko prozedurak erabiliko ditu haien ibilbidea aztertzeko, legez kanpoko ordainketekin edo ustelkeriarekin lotutako arriskutik babesteko.

Euskaltel Taldeko enpresek ez dute merkataritza-harremanik izango ez kontraturik egingo politika hau eta/edo ustelkeriaren aurkako araudia ez betetzeko arriskua duten pertsona edo enpresekin.

Arrisku horiek identifikatzeko, bere prozeduretan alerta-seinale batzuk erabiliko ditu Taldeak, hala nola:

- Eroskeria- eta ustelkeria-aurrekariak dituzten gaitan eta herrialdeetan negozioak edo negozio-proposamenak izatea (mundu osoan ustelkeriaren aurkako borrokan aritzen den gizarte zibileko “Nazioarteko Gardentasuna” erakundearen Ustelkeriaren Pertzepzio Indizea hartuko da erreferentzia gisa);
- Eroskeriaren aurkako politika eskasa izatea, edo ez izatea batere, edo hirugarren batek egindako galdera edo eskaerei uko egitea;



- Eroskeriaren kontrako bere politikaren betetze-erregistro gutxi izatea, edo ez izatea batere;
- Eroskeria- eta ustelkeria-aurrekariak dituzten gaietan hirugarren eta bitartekari ugari erabiltzea;
- Agente edo bitartekari jakin bat erabiltzea eskatzen duten bezeroak edo gobernuko funtzionarioak;
- Ordainketa bitxiak edo azalpenik ez duten kontuak finantza-erregistroetan (haiek eskura izanez gero);
- Praktika desagokiak edo eroskeria-eskaerak egin izanaren zurrumurruak edo salaketak;
- Dokumentazio faltsua edo engainagarria.
- Merkataritza-harremanei buruzko berri txarrak prentsan;
- Oparien edo gastu nabarmenen ebidentziak.

Obligaziodun subjektuek zaindu behar dute beren ardurapean dauden hirugarrenek betetzen dutela politika hau, eta susmoa izanez gero kontratu-obligazioak ez direla betetzen edo legez kontrako jokabideak daudela, horren berri eman behar dute.

4.3.5.- Babesletzak eta kolaborazioak

Honela gauzatzen da Euskaltel Taldearen konpromisoa zerbitzu ematen duen lurralde bakoitzeko gizartearekiko: taldeko sozietate bakoitzak babesletzak eta lankidetzak sustatzen ditu.

Taldeko sozietateek ezin dute babesletza eta/edo kolaboraziorik egin, eta ezin da haien izenean halakorik egin, Euskaltel Taldearen jardura eta negozioei eragiteko eroskeria gisa interpretatzeko arriskua baldin badago.

Euskaltel Taldeko enpresek egindako babesletzak, edo haien izenean egindakoak, ongintzakoak edo asmo onekoak bakarrik izan daitezke; ez da halakorik egingo eragin okerreko ondorioz izan daitekeen kasuetan.

Hautaketa-irizpide objektibo, arrazoizko eta gardenekin bat datozen babesletzak bakarrik eskain daitezke.

Euskaltel Taldeko enpresek ezingo dute babesletzarik egin, eta ezingo da haien izenean babesletzarik egin, Taldeko enpresa bakoitzak horretarako ezarritako prozeduren arabera aurretiazko onarpenik gabe.

4.3.6.- Kontabilitate-erregistroak



Euskaltel Taldearen jarduteko oinarrizko printzipioetako bat da bere finantza- eta ekonomia-informazioa fidagarritasunez ematea, eta printzipio hauetan oinarrituta: transakzioen existentziaren printzipioa eta informazioaren osotasunarena.

Eroskeria saiheste aldera, Taldeko enpresen kontabilitate-liburuek egiazko informazioa, osoa eta egindako jardueretik leiala emango dute une oro, eta berariaz debekatuko da kontabilitate-erregistroetako eta txostenetako informazioan irregulartasunak eta/edo ohar faltsuak sartzea, erabilera okerretarako.

Liburu ofizialetan erregistratu gabeko kontuak edukitzea debekatzen du Euskaltel Taldeak, bai eta egin gabeko gastuak erregistratzea eta dokumentu faltsuak erabiltzea ere.

Egindako eragiketa ekonomiko guztiak dokumentazio egoki eta egiaztagarrian jasotzen ditu Euskaltel Taldeak, eta kontabilitateko egoera-orriak egiteko erabilitako dokumentazio guztia gordetzen du, legeak ezarritako denboran.

4.3.7.- Mesede-tratuak eta interes-gatazkak

Euskaltel Taldeak debekatu egiten du boterea erabiltzea hirugarren bati egindako mesedeen truke senitartekoentzat edo hurbilekoentzat abantailak lortzeko.

Taldeko kontseilarien eta profesionalen betebeharra da taldearen interesei ematea lehentasuna, eta ez bere erabakietan eragina izan dezaketen interes pertsonalei edo hirugarrenen interesei, eta berariaz debekatzen du Euskaltel Taldearen bidez egindako harreman komertzialak interes propiorako edo senitartekoen edo hurbilekoen intereserako erabiltzea.

ADIBIDEAK:

1. Gerta liteke jasotako opariek edo onurek interes-gatazkak sortzea haien hartzaileek trukean zerbait emateko obligazioa sentitzen badute eta, azken batean, Euskaltel Taldearentzat kaltegarri liratekeen bidegabeko abantailak ematen badizkiete.
2. Finantza-inbertsioek interes-gatazkak sor ditzakete, inbertsioak egindakoek inbertitutako enpresekin harreman komertzialak izatea errazten badute. Adibidez, lizitazio batean, akzio-kopuru handia duen bazkide komertzial partikular baten alde egin dezakete, hornitzaile kualifikatuagoak alde batera utzita.
3. Senitartekoei edo hurbilekoei lana emateak interes-gatazka bat sor dezake, obligazio morala sentituta haiek lana lortzea errazten bada, pertsona kualifikatuagoak alde batera utzita.
4. Funtzionario publikoak kontratatzeak interes-gatazkak eragin ditzake. Funtzionario publiko ohien edo gaur egun funtzionario direnen esperientziaz eta jakintzaz baliatzea zilegi bada ere, ongi aztertu behar da haien kontratazioa.

4.3.8.- Lehiaren aurkako jardunbideak



Lehiaren aurkako jarduera hauek debekatzen ditu Euskaltel Taldeak: lehia mugatzen duten akordio eta merkataritza-jarduerak, bai horizontalak (hornitze-katearen maila bereko lehiakideen artean egiten direnak, prezioak finkatuz do ekoizpena mugatuz), bai bertikalak (fabrikatzaile eta banatzaile baten artekoak, adibidez), eta posizio nagusien abusuak.

Eta beste hauei ere uko egiten die: lehia desleialeko jarduera guztiei, lehiaren aurkako jarduerari eta lehiatzen ari diren enpresen merkatuei eragiten dieten akordioei, prezioei edo baldintzei buruzkoei.

Euskaltel Taldeak berariaz debekatzen ditu merkatuaren monopolioari bide ematen dioten eta lehia librea mugatzen duten jarduerak.



KANAL ETIKOA

Politika honi eta/edo politika honetatik eratorritako suposizioei buruzko zalantzarik izanez gero, profesionalek enpresako bere arduradunari galdetu behar diote, edo Araudia Betearazteko Arduradunari (Compliance Officer), edo Taldeko konpainietako Kanal Etikoa erabili. Hornitzaileek Kanal Etikoaren bidez egin ditzakete kontsultak, edo Euskaltelen duten solaskidearengana jo, zalantzaren edo kontsultaren izapideak egin ditzan.

Legez kontrako portaeren edo Politika honen urratzea dakarten edonolako portaeren berri eman behar dute profesionalek eta hornitzaileek, Kanal Etikoaren bidez.

DIZIPLINA-ERREGIMENA

Politika hau ez betetzeak, jada behar bezala ziurtatuta eta kalifikatuta dagoela, ondorio hau ekar dezake: erantzukizunak eta/edo zigorrak eskatzea, aplikagarri den legediaren, Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren eta/edo, halakorik balego, dagokion enpresa-hitzarmeneko diziiplina-erregimenaren arabera.